



Docentiaz

DOCENTIAZ

**IRAKASLANA
EBALUATZEKO PROGRAMA**

DOCENTIAZ programaren hamalauugarren deialdian parte hartu duen Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak erantzundako iritzi inkestan oinarritutako txostena

2024ko urria



SARRERA

DOCENTIAZ, UPV/EHUko irakasleen irakaslana ebaluatzeko gaur egungo eredua, ANECAk 2007an, ebaluazio agentzia autonomikoekin koordinatuta, abian jarritako Unibertsitateko Irakasleen Irakaslana Jarduera Ebaluatzeko Laguntza Programan (DOCENTIA) oinarritua, ANECA/UNIBASQek egiaztatu du, 2019ko urtarrilaren 18an.

DOCENTIAZ programa honek (IKDi³) Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoaren eredua du oinarri, ikaslea erdigune eta ardatz delarik, eredu hori berezkoa, kooperatiboa, eleaniztuna eta inklusiboa da, ikasleak beren ikaskuntzaren jabe izatea eta jasotzen duten ikaskuntza eta modu integral, malgu eta gizartearen beharretara egokitua izatea azpimarratuz.

Deialdi hau borondatezkoa da, aurreko deialdietan bezala, eta irakaslana ebaluatzeko hiru informazio iturri ditu: irakaslea (autotxostena betetzen duena), ikasleak (iritzia ematen dutenak, lauhileko bakoitzaren amaieran jasotako irakaskuntzari buruzko inkesta bat betetzen) eta, azkenik, ikastegia (Kalitate Batzordearen bitartez irakasleen lanaren alderdi formalei buruzko txosten bat egiten duena). Amaitzeko, hiru iturri horiek emandako informazioa aztertuta eta egiaztatuta, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) irakasleei zuzendutako amaierako txostena egiten du.

DOCENTIAZ programaren 14. deialdia 2024ko urtarrilean jarri zen abian, ohiko bideetatik ezagutarazi zen, eta 2024ko urrian amaitu zen.

Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) ebaluazio bat egin behar du, goian aipatutako hiru informazio iturrietan oinarrituta. Batzorde hau ondorengoek osatzen dute: irakaskuntzan ospea duten eta ebaluazio prozesuak ezagutzen dituzten UPV/EHUko irakasleek, gure unibertsitatean ikasi duten eta espediente aipagarria duten hirugarren zikloko ikasleek, eta UNIBASQek proposatutako UPV/EHUtik kanpoko bi kidek.

IEUBa aldi baterako zabaltzeko aukera aurreikusten da Irakaslanaren ebaluazioan eskumena duen errektoreordeak proposatu ahal izango die Gobernu Kontseiluko kideei, haiek berresteko, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko kideen aldi baterako zabalkuntza, kontuan izanda DOCENTIAZ deialdian parte hartzen dutenen kopurua, eskarien jakintza arloa eta hizkuntza. Errektoreak izendatu eta kargugabetuko ditu.

Jarraian, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko kideei egindako galdera-sortatik ateratako emaitzak ikus daitezke. Galdera-sorta, 2024ko uztailean, telematikoki bidali zitzairen eta modu anonimoan erantzun zioten.

Deialdi honetan, IEUBko 6 ikasle izan dira ebaluatzaile, bi Ebaluazio Batzorde iraunkorren eta lau zabaltzean aldi baterako izendatutakoak.

ERANTZUNEN ANALISIA

Galdetegiak likert motako neurri-eskala bat eta galdera dikotomiko, kategorizatu edo irekiak konbinatzen ditu. 19 galderaz osatuta dago DOCENTIAZ programaren garapenari buruz; eta horietatik, 9 atal irekiak dira; beraz, galdetegi honen atal kualitatiboa garrantzitsua da.

Galdetegia betetzeko gonbita egin zitzaien IEUBko kideetatik, 78 guztira, % 60k erantzun du. Ehuneko hori aurreko deialdikoa (% 56) baino pixka bat handiagoa da.

Txosten honetan, aurreko deialdian ez bezala, inkesten bilketa modu bateratuan egin da, irakasleen eta ikasleen emaitzen arteko alderik gabe.

Jasotako galde sorten bidez jasotako informazioa txosten honetara eramateko, aurreko txostenetan egin den bezala, edukia bi zati bereizitan banatzea erabaki da: lehenik eta behin, galdera eta erantzun motaren ondorioz informazioa modu grafiko eta kuantitatiboan transmititzeko aukera ematen duten itemak biltzen dira; ondoren, batera eta kualitatiboki, jasotako iritzien adierazgarritzat jo den informazioa jasotzen da.

Jarraian, lortutako emaitza nagusiak laburbiltzen dira, kolektiboz kolektibo, ondorengo eranskinean grafikoki adierazita.

DOCENTIAZ programaren dimentsio bakoitzeko pisuen banaketari buruzko iritziari dagokionez, % 87k uste dute Nahiko edo Erabat ados daudela; Batere ados ez da hautatu, eta Ez nago ados eta Gutxi gorabehera ados, % 6 eta % 6ko adostasunarekin, kasu bakoitzean.

Ebaluatzaileek uste dute irakasleengandik (% 91) eta KKKetatik (% 68) datorren informazio-iturria dela egokiena irakaskuntza-jarduerari buruzko informazioa emateko; baina, aipatzen dituzte kontuan hartu beharko lirakekeen informazio-iturri berriak: ikasgaiaren ikasgela birtuala eta saila.

Aplikazio informatikoak ebaluazio lana erraztu du, eta parte hartzaileen % 88k aldeko iritzia du (gutxi gorabehera, nahiko, eta erabat ados).

Ebaluatzaileen iritziak, DOCENTIAZ programak, irakasleen jardunaren balorazioaren kategorizazioa kontuan hartuta, irakasleak bereizten ditu irakaskuntzaren kalitatearen arabera, % 98 gutxi gorabehera, nahikoa eta erabat ados dago.

Espedienteen ebaluazioan erabilitako denborari dagokionez, % 36k 5 ordu aukeratu zituen eta % 32k 4 ordu. Ordubeteko aukera ez zuen inork aukeratu, eta 2 ordu eta hiruk % 15eko eta % 17ko erantzunak izan zituzten, hurrenez hurren..

Dimentsioei buruz lortutako erantzunen % 70ek uste du ez lukeela bat bera ere aldatuko. 1. dimentsioa da aldatzeko iritzien ehuneko handiena duena (% 38).




Eranskina:

Jasotako erantzunak




Ehuneko balioak dituzten grafikoak:


Ehuneko grafikoa (3., 5., 8., 11., 13. Itemak)




1.itema Hautatu zure jakintza adarra



6.itema Beste informazio-iturriren bat sartzea hartzen duzu beharrezkotzat?




15.itema Azaldu zein izan den erabilitako denbora, batez beste, espedienteak ebaluatzerakoan






16.itema Dimentsioren bat aldatuko zenuke?



17.itema Dimentsioren bat aldatuko bazenu, azaldu zein izango litzatekeen





Erantzun irekia duten itemen emaitzak, erantzunak gaikako edukien arabera bilduta.

2. itema.- Adierazi DOCENTIAZ programaren adierazle bat, baztergarria dena. Mesedez, arrazoitu erantzuna (32):

- **Adierazle guztiak beharrezkoak eta egokiak dira (23).**
- **Ikasleen iritziari buruzko inkesta (5).** 17., 18., 19. adierazleek 2.2 Ikasleen iritziari buruzko inkestaren puntuak ebaluatutako alderdiak jasotzen dituzte; ikasleen iritziari pisu handiegia ematen zaiola uste da.
- **Ebaluazio jarraitua eta formatiboa, feedback egokia izanik (2).** Ebaluazio jarraituari buruzko 16. eta 27. adierazleen edukiak antzeko edukiak ebaluatzen dituztela baieztatzen da.
- **Arrakasta-tasak (2).** Baztergarriak dira, ikasleak egiten duen ahaleginaren eta irakasgaiaren ezaugarrien arabera direlako.

4. itema.- Adierazi aldaketa posible bat (DOCENTIAZ programaren dimentsio bakoitzaren pisuak ondo banatuta daude) (18):

- **1.Dimentsioa. Irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena (6).** Puntuazio txikiagoa ematea proposatzen da, zaila baita ikaslearen gida eta ikaskuntza jarduera ikasleari eman zaizkionak diren egiaztatzea. Ikaskuntza jarduera eGelan dagoen egiaztatzea iradokitzen da, ikaslearekin feedback eman delako ebidentziak izateko. Era berean, ikaslearen gidaren autoretza sarritan irakasle-taldeari dagokiola ziurtatzen da, irakasleak berak egina izan beharrean.
- **Ikasleek duten iritziari buruzko inkesta (4).** Bi iritzirik eskatzen dute inkestek pisu txikiagoa izatea programan; aldiz, beste bik adierazten dute ikaslearen iritzia garrantzi handiagoa izan beharko lukeela irakaskuntzaren ebaluazioan.
- **Arrakasta tasak (3).** Programan pisu handiegia dutela adierazi da: ez gainditzearen ehuneko handi bat ez da, nahitaez, irakaskuntzako jarduna txar baten seinale.
- **Argitalpenak (3).** Irakasleen jakintza-arloko materialak eta prestatzeko ikastaroak kontuan hartzea eskatzen da, hau da, hezkuntza-berrikuntzara soilik mugatzen ez diren argitalpenak. Era berean, hedapen atala zabaltzea proposatzen da, dibulgazio-lanak sar daitezten.
- **DOCENTIAZ programa irakasleen profilen arabera diseinatzea (2).** Ebaluazioa karrera akademikoaren mailetara egokitu beharko litzatekeela

adierazten da; adibidez, irakasle hasiberri bati ezin zaio eskatu MALak, GALak edo tesiak zuzentzeko.

7. itema.- Mesedez, arrazoitu zure erantzuna (beharrezkotzat jotzen duzu beste informazio iturriren bat sartzea?) (13):

- **eGelaren informaziorako sarbidea izatea (4).** Irakasleen irakaskuntza-jardunari benetan dagokion ebaluazioa egiteko, eGelaren (gela birtuala) informazioa kontsultatu behar dela baieztatzen da.
- **Ikasleen iritzia (4).** Ikasleek ikasitakoari buruz duten iritzia inkesta osatuko duten beste ebidentzia batzuen bidez kontua hartzea proposatzen da.
- **Saila (3).** Irakasleak ebaluatzeko zereginean saila sartzea proposatzen da.
- **Ikasgelako irakaslanaren ebaluazioa (2).** Baliabide-kostu handia duen arren, proposatzen da IEUBk zuzenean begiratu beharko lukeela ikasgelan irakasleen irakaskuntza-lana.

9. itema.- Adierazi alderdi negatibo bat (35):

- **Aplikazioa geldoa eta ulertzeko zaila da (23).** Aplikazioak ebaluazio-lana zailtzen duela adierazi da, oso motela delako eta dokumentu guztiak aldi berean deskargatzen uzten ez duelako. Gainera, nabigatzaile batzuekin bakarrik funtzionatzen du. Bestalde, IEUBeko eta ikastetxeko kalitate-batzordeko kide izanez gero, adierazleak egiaztatzeko lana are gehiago zailtzen da. Azkenik, eGelapi, DOCENTIAZ aplikazio informatikoa eta Excel erabiltzea ez dela erraza eta dedikazio handia eskatzen duela adierazi da.
- **Espediente bakoitza ebaluatzeko denbora gehiegi da (7).** Ebaluazio-prozedura konplexua da, eta horri gehitu behar zaio irakasleek askotan ez dutela behar bezala jartzen atal bakoitzean eskatzen den merezimendua, eta, beraz, ebaluatzaileak dagokion atalean sartu behar ditu merezimenduak. Era berean, binakako ebaluazioak bilerak eskatzen ditu, ahaztu gabe fitxategiak eGelaPi-ra igotzeko zeregina, eta, ebaluazioaren azken emaitza aplikaziora.
- **DOCENTIAZ programak ez du aldaketarik behar (5).** Gaur egun dagoen bezala ebaluazio-prozedura mantentzearen aldeko iritzia dira.



10. itema.- Adierazi zer hobetu daitekeen (30):

- **Aplikazio informatikoa (17).** Adierazten da aplikazio informatikoa hobetu egin behar dela, ebaluazio arinago eta automatikoago baten euskarri izan dadin. Ildo horretan, IEUBk erabili beharreko dokumentazio guztia plataforma bakar batean eskuragarri egotea eskatzen da.
- **Ebaluazio-protokoloa (4).** Ebaluatu beharreko alderdi bakoitzaren garrantzia hobeto azaldu behar dela adierazi da, merezimenduak zein ataletan kokatu behar diren adierazi behar da, adierazleen deskribapenak hobetu behar dira – batez ere 3. dimentsiokoak –. Laburbilduz, protokoloa oro har berrikustera hobesten da, zehatzagoa izan dadin.
- **Espediente kopurua ebaluatzaile bakoitzeko (3).** Ebaluatu beharreko espedienteen kopurua txikiagoa izatea eskatzen da.
- **Ikaslearen gida (2).** Ikaslearen gidak eta aurkeztutako zereginak irakaskuntzan erabiltzen direnak direla egiaztatzeko neurriak eskatzen dira, adibidez, dokumentu horien data egiaztatzeko sinadura digitala.
- **Ikasleen iritziari buruzko inkesta (2).** Inkesta espezifikokoagoak egiteko beharra hauteman da.
- **Zuzeneko behaketa gelan (2).** Ikasgelan zuzeneko behaketa ezinbestekoa dela irakaslan ebaluatzeko orduan.

12. itema.- Zehaztu zer gabezia antzeman duzun protokoloan (14):

- **3. Dimentsioa. Irakasleen garapen profesionala (11).** Adierazleen anbiguotasuna dela eta, merezimendu batzuk – 3.3. puntua- baloratzen zailak direla adierazi da. Adibidez, 3.4.2 "Indexatutako aldizkarietako artikulak" atalean zehaztu beharko litzateke puntuazioaren maximoa: argitalpen-kuartilaren, egile-kopuruaren edo beste edozein faktoreren arabera den. Halaber, hedapen-jarduerek zehatzago egon beharko luketela uste da. Azkenik, ebaluaziorako zein merituk balio duten eta zein ataletan jarri behar diren hobeto definitzea iradokitzen da.
- **Adierazle anbiguoak eta balorazio-eskala (3).** Ebaluazio-tartea duten adierazleek (4-5) askotariko interpretazioak egiteko bidea ematen dute ebaluatzaileen artean. Adierazle batzuk anbiguoak dira, adibidez, kronograma "osoaren" kasuan. Beharrezkotzat jotzen da eskalan dezimalak sartzea, "0" aukera bat ere, eta/edo "ezin da ebaluatu".

14. itema.- Adierazi zein neurrik lagunduko lukeen bereizketa hori lortzen, irakaskuntzaren kalitatearen arabera (irakaslana baloratzeko kategorizazioa kontuan hartuta, DOCENTIAZ programak irakasleak diskriminatzen ditu irakaskuntzaren kalitatearen arabera) (12):

- **Arrakasta-tasa (5).** Irakasle zorrotzak zigortzen dituela baieztatzen da, eta ikasle kopuru handia duten eskolak, gainera, metodologia aktiboen erabilerak ez du ikasleen harrera onik. Azkenik, arrakasta-tasak haztatzeko mekanismo zuzentzailearen bat sartzea proposatzen da, mailaren batez bestekoarekin alderatzea ez baita egokia.
- **3. Dimentsioa. Irakasleen garapen profesionala (4).** Irakaskuntzaren kalitatearekin baino, karrera akademikoaren estatusarekin (tesiak zuzentzeko aukera, kudeaketa-karguak eta akademikoak izatea) lotura handiagoa duten adierazleak biltzen ditu. Ziurtatzen da Hedapena atalean adierazleak hobeto definitu beharko lirатеkeela.
- **Zuzeneko behaketa gelan (3).** Ebaluazio metodo hau irakasleen irakaskuntza-kalitatea ebaluatzeko egokiena dela baieztatzen da.

18. itema.- Adierazi proposatzen duzun aldaketa eta dagokion dimentsioa (7)

- **3. Dimentsioa. Irakasleen garapen profesionala (3).** Proposatzen da irakasleei informazio zehatzagoa ematea IEUBk baliozkotzat jotzen dituen merezimenduei buruz; irakasle-lidergoaren pisua murriztea, irakasle askok ezin baitute parte hartu, beren karrera akademikoaren hasieran daudelako; irakaskuntzaren hedapenean eskatzen diren ekintzak hobeto zehaztea.
- **Arrakasta-tasak (2).** Gutxieneko irizpide batzuk betetzen ez dituzten ikasleak ez gainditzea irakaskuntza-erantzukizunaren zati bat dela baieztatzen da, eta, beraz, ezin dela zigorrik ezarri.
- **Ikaslearen gida eta ikaskuntza jarduera (2).** Bi dokumentu horien autoretza bermatzen duten mekanismoak izatea, adibidez, sinadura elektronikoa edo eGelarako sarbidea.

19. itema.- DOCENTIAZ programa hobetzeko, komeni da gogoeta hauek egitea (35):

- **Ez dago gogoeta egiteko alderdi aipagarriarik (7).**
- **Inkosten pisua (5):** Baieztatzen da ikasleen iritzia irakasgaiaren zailtasunaren arabera dela, eta programan duten pisua murriztearen alde egiten da.
- **Arrakasta-tasen pisua (5):** Lehen mailan irakasten bada, zaila da %100eko arrakasta-tasak izatea, eta irakaskuntza azken ikasturteetan eta masterretan oinarritzen bada, berriz, nahiko erraza da.



- **Gehiegizko dedikazioa eskatzen du (4).** Bost espediente baino gehiago ebaluatzea lan-karga bat da, eta JARDUNen ez da behar beste islatzen ebaluazioan emandako orduak.
- **Ikaslearen gidaren eta ikaskuntza jardueraren autoretza (2).** Hautematen da ikaslearen gidetan eta ikaskuntza jardueran mekanismoak falta direla ebaluatuko den aldian ikaslearekin landu diren dokumentuak direla ziurtatzeko. Sinadura digitala proposatzen da dokumentu horiek egin diren unea egiaztatzeko.
- **3. dimentsioa. Irakasleen garapen profesionala (2).** Merezimenduen kopurua murriztu behar da, irakasleek diskriminatu eta garrantzitsuenak hauta ditzaten; bestalde, ebaluazio-irizpideak estandarizatzea gomendatzen da: azpibatzerde batzuek balioesten dute argitalpenak nazioartekoak diren, puntuaziorik handiena emateko; beste batzuek, ordea, ez.
- **Alegazioen epea (2).** Uztaila izan beharrean iraila izatea eskatzen da, uztaila GALak, MALak, kongresuetara joatea eta abar zuzentzen dituen hilabetea delako.
- **Adierazleen balorazio-eskalan, ebaluatu gabeko aukera sartzea (2).** Ebaluatu gabeko aukerak erantzun egokia emango lieke bidegabeko dokumentazioa aurkeztu duten kasuei.
- **DOCENTIAZ programa ibilbide akademikoetara egokitzea (2).** Programa karrera akademikoaren une desberdinetara egokitzea proposatzen da: hasiberria, seniorra, ertaina.
- **Irakaskuntza-eredu bikainak (2).** Irakaskuntza-eredu bikainak izatea eskatzen da DOCENTIAZ programara aurkeztu diren irakasleentzat, erreferentziak izan ditzaten.
- **Ikasleen taldeen tamaina (2).** Garrantzitsua da ikasleen taldeen tamaina kontuan hartzea, aplikatu daitezkeen metodologia eta tresna motak baldintzatzen baititu.